# -*ero*, -*oro* ala -*ro*?

Alegia, *minutu**ero***, *minutu**ro*** ala *minutu**oro***?

Euskaltzaindiak oraingoz ez du ez araurik ez gomendiorik eman atzizki-aldaera horietatik kasuan kasu zein erabili behar dugun azaltzen duenik. *Hiztegi Batu*ra jotzen badugu, ordea, horren gaineko informazioa aurkituko dugu.

# *Hiztegi Batuan*, adberbio hauek daude jasota:

*aldiro*
*arratsaldero*
*asteartero*
*asteazkenero*
*astelehenero*
*astero*
*egunero*
*gauero*
*goizero*
*hamabostero*
*hilabetero*
*hilero*
*igandero*
*iluntzero*
*jai**ero***
*larunbatero*
*minutu**ero***
*negu**ero***
*ordu**ero***
*ostegunero*
*ostiralero*
*segundo**ero***
*udaberriro*
*uda**ro***
*udazkenero*
*urtero*

- *Asteburu**ero*** (Jagoneten arabera, “arautu bidean dago”.)

# Gogoratu ezazu atzizki hau ez dela erabili behar honelako denbora-maiztasuneko egituretan:

- * Bi orduero heltzen da trena.
  - Bi orduan behin heltzen da trena
  - Bi ordurik behin…
  - Bi orduz behin…
  - Bi ordutik behin ….

- * Plangintza bost urtero berritzen da.
  - Plangintza bost urtean berritzen da.
  - Plangintza bost urterik behin…
  - Plangintza bost urtez behin…
  - Plangintza bost urtetik behin…

Denbora-maiztasuneko egiturei buruz gehiago jakiteko, ikus…

- EHULKUren aholkua: denbora-maiztasuna
- Euskaltzaindiaren 110. araua